

MUSEO BIRTUALA
GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO TIRA

GIDA DIDAKTIKOA

AURKIBIDEA

| | Or. |
|--|------------|
| “Giza eskubideen aldeko tira”, gida didaktikoa | 2 |
| 1.- Aurkezpena | 3 |
| 2.- Ikastaldearen dinamika | 4 |
| 3.- Edukiak | 5 |
| 3.1.- Aldarrikapen Unibertsalari buruzko oinarrizko informazioa | 5 |
| 3.2.- Gai-multzoak | 6 |
| 4.- Edukien banaketa | 8 |
| 5.- Jarduerak gai-multzoka banaturik | 9 |
| 5.1.- 1. multzoa. 1. eta 2. atalak | 9 |
| 5.2.- 2. multzoa. 3. ataletik 11.era | 11 |
| 5.3.- 3. multzoa. 12. ataletik 17.era | 16 |
| 5.4.- 4. multzoa. 18. ataletik 21.era | 21 |
| 5.5.- 5. multzoa. 22. ataletik 27.era | 24 |
| 5.6.- 6. multzoa. 28., 29. eta 30. atalak | 29 |

“Giza eskubideen aldeko tira”, gida didaktikoa

Material hau lagungarria gertatuko zaizu, ikasgelan Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala lantzeko orduan. Asmo horrekintxe sortu dugu behintzat.

“Giza eskubideen aldeko tira” Museo Birtuala 2.0 motako tresna bat da eta, horren bidez, ikasleek Aldarrikapen Unibertsalaren 30 atalei buruzko 68 tira grafiko ikus ditzakete. Tira grafiko horiek oinarritzat harturik, gida didaktiko honek zenbait ibilbide birtual proposatzen ditu, museo honetan zehar egiteko, Giza Eskubideen Aldarrikapena osatzen duten 30 atalak aztertu eta eztabaidatze aldera.

Azken batean, era jostagarri batez funtsezko irizpide batzuk helarazi nahi dizkiegu ikasleei, gizarte demokratiko bateko herritar gisa gara daitezen.

Lehenengo ebaluazio bat badago, eta hartan ikus dezakegu nolako TIC gaitasuna duten programa honetan parte hartuko duten ikastaldeko ikasleek.

Museo birtual honetako tira grafikoetan, curriculumak zehazten dituen gaitasunak landu ahal izango ditugu.

Zientzia, teknologia eta osasun arloko kulturarako gaitasuna
Ikasten ikasteko gaitasuna
Matematikarako gaitasuna
Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
Informazio-tratamendurako eta gaitasun digitalerako gaitasuna
Gizarte eta herritarren arloko gaitasuna
Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna
Autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna

1.- Aurkezpena

“Giza eskubideen aldeko tira” honetan, Espainiako nahiz atzerriko zenbait komikigilek aurkeztutako lan grafikorik onenak bilduta daude. Lan horiek 2010. urteaz geroztik sortu dituzte eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren atalen batekin lotuta daude. Jasotako 68 lan onenekin, hezkuntza-bokazio nabarmeneko gunen birtual hau sortu dugu, non irakasleek eta ikasleek ibilbide bat egin baitezakete 30 ataletan barrena, denetariko marrazkiak, irudiak nahiz testu laburrak erabiliz, guztiak ere eskolako neska-mutilek erraz ulertuko dituztenak.

Irudi horien bitartez, kontzeptuak ulertu eta azaldu egiten dira; gainera, –eta hauxe da garrantzitsuena– ia automatikoki barneratzen dira. Esaterako, neskatila bat amildegi ertzean agertzen da, eskola bat parean duela, eta erdian zubirik ez eskolara joateko; horrek hezkuntzarako eskubide unibertsala irudikatu nahi du, alegia, estatu guztiek beharrezko tresna guztiak jarri behar dituztela, eskubide hori gauzatzeko.

Eztabaidagarria da irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, baina argi dago irudiek lagundu egiten dutela kontzeptuak azaltzen.

Kolorea, formak, umorea eta ironia funtsezkoak dira, internet bidez bisita daitekeen ekimen honetan. Teknologia berriek ematen dituzten erraztasun guztiak ditu, bai eta komikiaren eta tira grafikoen berezko xarma ere.

Museo birtual hau oso erabilgarria izan daiteke gazteenek ezagut dezaten Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, dituen kontzeptuetan sakonduz eta –hauxe da garrantzitsuena– beren bizi-garapenean barneratuz.

2.- Ikastaldearen dinamika

Proiektuaren antolamendua oso malgua da, eta ikastalde bakoitzaren beharretara nahiz ezaugarrietara eta irakasleen irizpideetara egokitu behar da.

Honako hauek izan daitezke parte-hartzaile:

1. ikastalde osoa.
2. lau edo sei laguneko taldea, bozeramailea ere baduena.
3. nesken talde bat eta mutilen beste talde bat.
4. banakako lana izan daiteke, eta gero, gaia taldean edo ikaskide guztien aurrean aztertu.
5. banakako lana.
6. bikotekako lana.
7. bikote mistoetan egindako lana.

Saioen denbora-antolamendua

1. Saio bat atal batzuk aztertzeko, esaterako, hezkuntzari buruzkoak, edo lan eta atsedenerako eskubideaz ari direnak.
2. Zenbait saio, gai desberdinak lantzeko.
3. Egun bateko monografikoa.
4. Giza eskubideen astea.

3.- Edukiak

3.1.- Aldarrikapen Unibertsalari buruzko oinarritzko informazioa

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen, bere 217 A (III) Ebazpenean; ekitaldia Parisen izan zen, 1948ko abenduaren 10ean. Aldarrikapenaren 30 artikuluetan, funtsezko giza eskubideak bilduta daude.

Aldarrikapenak, giza eskubideen nazioarteko itunek eta beren protokoloek osatzen dute Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpena. Aldarrikapen unibertsala oro har orientazio-dokumentua bada ere, itunak nazioarteko hitzarmenak dira, eta sinatzen dituzten estatuek derrigor bete egin behar dituzte.

Giza eskubideek urteen joanean izan duten bilakaeran, XVII. mendetik aurrera hasten dira entzuten oinarrian “zuzenbide naturala” duten adierazpen argiak. 1679an, Ingalaterrak Habeas Corpus Legea eta Eskubideen Adierazpena sartzen ditu bere konstituzioan; Frantzia, ordea, 1789an plazaratzen da Gizakien eta Herritarren Eskubideen Aldarrikapena delakoa, iraultzaren ondorioz.

1927an, Genevako Itunak esklabotza debekatu zuen. “Maniletako Kodeak” direlakoek Nazioarteko Morala (1937), Gizarte Harremanak (1927), Familia Harremanak (1951) eta Moral Politikoaren Kodea (1957) biltzen zituen; kode horien bidez, herri-agintariak nolabait arautu nahi zuten gizabanakoarenganako errespetua, arlo hori eskuarki ez baitzuten kontuan hartzen estatuek. Lehenengo Mundu Gerraren ondorioz, Nazioetako Sozietateak Genevako Itunak bultzatu zituen, gerra-presoen segurtasun, errespetu eta gutxieneko eskubideei buruzkoak. 1948an, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Universal Declaration of Human Rights” delakoa onartu zuen, hots, gaur egun Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala izenez ezagutzen duguna. Dokumentu hori, azken batean, arau eta printzipio sorta bat da, gizakiek botere publikoen aurrean duten bermea.

Aldarrikapen Unibertsalaren hitzaurrea, zioen adierazpena izenez ere ezaguna dena, aldarrikapenaren hasierako azalpen-zatia da, eta ez dago aldarrikapenaren barruan, eta ez da derrigor bete beharrekoa. Hala onartzen dute guztiak. Baina aldarrikapenaren asmoak aztertu eta interpretatzeko erabiltzen da. Aldarrikapenaren laburpena da, beraz, hitzaurrea, eta haren edukia interpretatzeko ere balio du.

3.2.- Gai-multzoak

Museo Birtuala osatzen duten hiru eremuetan ez da aldatzen jardueraren funtzionamendua; hasi eta buka berbera da. Labur-labur, hauxe da: ikasleek arretaz begiratu behar diote tira grafiko bati, irakasleak emandako irizpideen arabera aurretiaz hautatu dena, eta binetaren elementu nagusiak aipatu, horrek lagunduko baitigu ondo interpretatzen aldarrikapena aztertzen ari garelarik esku artean dugun atala.

Giza Eskubideen Aldarrikapenaren atalak honako sei multzo hauetan azter daitezke:

1. multzoa: 1. eta 2. atalak eskubideen unibertsaltasunaz ari dira

1. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

2. Ez zaio begiratu gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen.

(Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenaren 2. atala)

2. multzoa: 3. ataletik 11.era, eskubide pertsonalak lantzen dira

Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

(Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenaren 4., 5. eta 11.1 atalak)

3. multzoa: 12. ataletik 17.era, norbanakoak erkidegoarekiko dituen eskubideak lantzen dira

Pertsona orok du edozein herrialdeetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.

(Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenaren 13.2 eta 17.1 atalak)

4. multzoa: 18. ataletik 21.era, pentsamendu, kontzientzia, erlijio eta askatasun politikorako eskubideak lantzen dira

Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, ihardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

Gizabanako guztiak dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egiteko eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolanhiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

(Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenaren 18. eta 19. atalak)

5. multzoa: 22. ataletik 27.era, eskubide politikoak, sozialak eta kulturalak lantzen dira

Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak [...]

Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarritzko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarritzko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da [...]

(Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenaren 25 eta 26. atala)

6. multzoa: 28. ataletik 30.era, eskubide horiek baliatzerakoan dauden baldintzak eta mugak lantzen dira

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

(Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenaren 28. atala)

4.- Edukien banaketa

Museo birtual honetan ikusgai dauden tira grafikoak hiru eremutan banatuta daude:

1. kokapena: Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea (Gipuzkoa), bi gune eta 32 tira grafiko dituena.

1A Irabazleak (1., 2., 3., 4. eta 5. binetak)

Aieteko jauregia:

2 B Leihoa (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. binetak)

2B Atea (9., 10., 11., 12., 13., 14., 15. eta 16. binetak)

Lorategiak:

1C Loreak (17. eta 18. binetak)

1C Kobazuloa (19. eta 20. binetak)

1C Estatua (21. eta 22. binetak)

1C Putzua (23. eta 24. binetak)

Kulturgunea:

1D Kulturgunea (25., 26., 27., 28., 29., 30., 31. eta 32. binetak)

2. kokapena: Andra Mari Zuriaren Plaza (Araba), bi gune eta 18 bineta dituena.

2A Elizpea (33., 34., 35., 36., 37., 38., 39., 40. eta 41. binetak)

2B Plaza Barria (42., 43., 44., 45., 46., 47., 48., 49. eta 50. binetak)

3. kokapena: Bilboko itsasadarraren ingurua (Bizkaia), bi gune eta 18 bineta dituena.

Hurrengo irudian, laguntza ematen da aipatutako multzoen arabera binetak bilatzeko. Gainera, iradokizunak egiten dira, bineta ikusi eta aipatzen den atala irakurri ondoren pizten den eztabaidan erabiltzeko:

3A Abandoibarra (51., 52., 53., 54., 55., 56., 57., 58. eta 59. binetak)

3B Karola garabia (60., 61., 62., 63., 64., 65., 66., 67. eta 68. binetak)

Oharra: **1A Irabazleak** guneak bost lan biltzen ditu, marrazkilariek Fernando Buesa fundazioaren 2010eko edizioan aurkeztutako onenak hain zuzen.

5.- Jarduerak gai-multzoka banaturik

5.1.- 1. multzoa: 1. eta 2. atalak eskubideen unibertsaltasunaz ari dira

| At. | Lekua | Bineta | Kontzeptuak |
|-----|-------|--------|--|
| 1 | 1B | 12 | (...) Elkarren artean senide legez jokatu behar dugu |
| 1 | 1C | 17 | Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira (...) |
| 1 | 1C | 19 | (...) Elkarren artean senide legez jokatu behar dugu |
| 1 | 1C | 24 | (...) Elkarren artean senide legez jokatu behar dugu |
| 2 | 1B | 10 | Sexu-arrazoiengatik ezin da inor baztertu |
| 2 | 1D | 27 | 1. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. |

Eztabaidarako iradokizunak (1. multzoa)

1. atala

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

1B Atea - 12. bineta

- 1.- Zergatik harritzen da mamuta ikusten duenean gizon batzuk bere ondotik pasatu eta ez direla gelditzen, beste gizon batzuen kontra borrokatzea doazelako?
- 2.- Portaera horrek logikarik ba al dauka?
- 3.- Zer da "senide legez" jokatzea?

1C Loreak - 17. bineta

- 1.- Zer datorkizu burura giltzarrapo bat ikusten duzunean? Eta giltza-debekuari buruzko trafiko-seinalea ikusten duzunean?
- 2.- Zer da zuretzat askatasuna, aske jaiotzea?

1C Kobazuloa - 19. bineta

- 1.- Nolako elkarrizketa dute bi pertsonak? Errespetuzkoa, senide artekoa... entzungorren arteko solasaldia al da?
- 2.- Zer esango zenuke hiru elkarrizketa-mota horiei buruz?

1C Putzua - 24. bineta

- 1.- Besteren beharrei kasurik ez egitea al da senide legez jokatzea?
- 2.- Zuk laguntzen al diezu laguntza premia dutenei? "Senide legez" jokatzeko al duzu haiekin?
- 3.- Esan esaldi hauetako zeinekin zauden ados:
 - Ez da hain txarra zure itxuraren kontura txantxak egitea. Zuri esker jendeak barre egingo du eta zutaz oso iritzi ona izango dute.

- Niri iritziz, ez dago ondo nire adineko inoren kontura barre egitea. Baina desberdina da irakasleen kontura barre egiten badugu. Hori ondo dago, zaharrak direlako eta gu izorratzea besterik ez dutelako buruan.
- Itxura arraroa duen norbait ikusten dudanean ezin diot barreari eutsi. Guztiok tantaiaik eta ederrak izan beharko genuke, eta modako jantziak eraman.
- Nire lagunak onenak dira, apartak; itxura narrasekoak ezin ditut jasan.

2. atala

1. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheratik.
2. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituena.

1B Atea – 10. bineta

- 1.- Zer iruditzen zaizu zenbait herritako emakumeek debekatuta izatea aurpegia jende aurrean erakustea?
- 2.- Zer iruditzen zaizu aurpegia estaltzea, zenbait emakumek askatasunez erabakitako zerbait bada?
- 3.- Zer da zuretzat pertsona bat baztertzea?
- 4.- Uste al duzu zure inguruan emakumeak baztertuta daudela?

1D Kulturgunea – 27. bineta

- 1.- Bineta horretan, uste al duzu bi pertsonaiak berdin gozatzen ari direla hondartzako egun horretaz? Zergatik uste duzu dagoela emakumea guztiz jantzita, eta ez gizona?
- 2.- Zer iruditzen zaizu gizon eta emakumeen arteko berdintasuna?
- 3.- Zure ikastaldean, guztiek dituzue jardueretan parte hartzeko aukera berak?

5.2.- 2. Multzoa: 3. Ataletik 11.era, eskubide pertsonalak lantzen dira

| At. | Lekua | Bineta | Kontzeptuak |
|-----|----------------|--------|--|
| 3 | 1C | 23 | Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea. |
| 4 | 1B | 11 | Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro. |
| 5 | 3 ^a | 57 | Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere. |
| 6 | 2B | 47 | Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitor diezaioten eskubidea. |
| 6 | 3 ^a | 59 | Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitor diezaioten eskubidea. |
| 6 | 3B | 67 | Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitor diezaioten eskubidea. |
| 7 | 1B | 7 | Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babes izateko eskubidea. (...) |
| 7 | 1C | 21 | Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babes izateko eskubidea. (...) |
| 7 | 1D | 28 | Edonork, dagoen egoeran dagoela, legezko babes jasotzeko eskubidea du. |
| 8 | 3 ^a | 51 | Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarritzko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea. |
| 8 | 3B | 62 | Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarritzko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko (...) |
| 9 | 3 ^a | 52 | Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.X |
| 9 | 3B | 64 | Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu. |
| 10 | 1B | 8 | Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeke. |
| 11 | 1D | 30 | 1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio. |

Eztabaidarako iradokizunak (2. Multzoa)

3. atala

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

1C Putzua – 23. bineta

- 1.- Ezin da inoren kontra indarkeria erabili, bizitzeko eta segurtasunerako duen eskubidea urratzen delako. Ikaskide bati kokoteko bat edo bultzada bat ematea edo ikara eragitea artikulua horren kontra dauden portaerak dira.
- 2.- Aipatu zure ikastaldean, eskolan, auzoan edo etxean ikusi dituzun egoera batzuk, non artikulua hori urratzen baita.
- 3.- Pertsona bati kalte fisikoa eragiten badiozu, kalte emozionala ere eragiten diozu. Zer uste duzu esan nahi duela horrek?

- 4.- Ez da zilegia indarkeria erabiltzea, horren helburua edozein delarik ere.
- 5.- Binetan, arnasa hartzen hasteko zaplastako bat jasotzen duen jaioberri bat agertzen da. Marrazkilariak umorea darabil egoera gozoago egiteko, eta barre eginarazten digu. Baina indarkeria erabiltzeak barre eginarazten al digu? Noiz? Zerbait barregarria al da?
- 6.- Aipatu zer ondorio dituen pertsona batentzat beraren kontra edozein indarkeria mota erabiltzeak.
- 7.- Norbait ezagutzen al duzu, besteei gailentzeko indarkeria erabiltzen duena?
- 8.- Uste al duzu indarkeriaz erantzun behar zaiola?
- 9.- Ba al dakizu zer egin behar den zuk edo zure lagunen batek abusua edo indarkeria jasaten badu?
- 10.- Zuk zerbait egin dezakezu, halakorik gerta ez dadin:
 - Gurasoei esan eta haiek erabaki dezatela zer egin.
 - Fidatzen zaren irakasle bati esan. Berak emango dizu aholku egokia.
 - 116111 telefonora deitu, horixe da-eta HAURREI ETA NERABEI LAGUNTZEKO TELEFONOA, eta kontatu zer gertatu den.

4. atala

Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

1B Atea – 11. bineta

- 1.- Gaur egungo esklabotza-motaren bat ezagutzen al duzu?
- 2.- Binetako pertsonaiak urre koloreaz margotzen ditu kateak. Hala ere, kateaturik egoten jarraitzen du. Zer uste duzu esan nahi izan duela horrekin marrazkilariak?
- 3.- Ezagutzen al duzu kasuren bat, non askatasuna zerbait zehatzen truke eman baita, esaterako, adibidez, dirua edo gizarte-maila?
- 4.- Zer da zuretzat askatasuna? Zerbaiten esklabo sentitzen zara?
- 5.- Ikastaldeko liderrak egin nahi ez duzun zerbait egiteko eskatzen badizu, kasu egingo diozu zure laguna izan dadin? Barrenak esaten dizuna egin behar duzu?
- 6.- Egin nahi ez duzun zerbait egiteko mehatxatzen bazaitu, aske jokatzeko al duzu?
- 7.- Mehatxuak jasotzen badituzu, gauza asko egin ditzakezu, halakorik berriro gerta ez dadin. Adierazi hauetako zein iruditzen zaizkizun egokienak:
 - Gurasoei edo irakasleei kontatzen diet, lagundu diezadaten.
 - Nire ikastaldeko indartsuenen laguntza lortzen dut eta denon artean egurtu egiten dugu mehatxatu nauena.
 - 116111 telefonora deitzen dut, horixe da-eta HAURREI ETA NERABEI LAGUNTZEKO TELEFONOA, eta kontatu egiten diet zer gertatu den, lagundu diezadaten.
 - Mehatxatu nauenaren esana betetzen dut, nahiz eta beste norbaiti kaltea eragiteko izan... horrela, ni salbu eta libre geratzen naiz-eta.

5. atala

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

3A Abandoibarra – 57. bineta

- 1.- Film askotan ikusiko duzu poliziek bere nagusitasunaz abusatzen dutela, pertsona susmagarri bati indarrez informazioa erazteko. Uste al duzu polizia izateak eskubidea ematen duela atxilotuaren kontra indarkeria erabiltzeko?
- 2.- Uste al duzu egoeraren batean justifika daitekeela?

6. atala

Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitor diezaioten eskubidea.

2B Plaza Barria – 47. bineta

- 1.- “Papergabeek” ez dute inolako agiririk, nortasun juridikoa ematen dienik. Nortasun juridiko horrek bermatzen du guk beste edozein herritarrek bezala eskubideak izango ditugula.
- 2.- Zer iruditzen zaizu herrialde batera iritsi eta hor osasunerako eskubidea, hezkuntzakoa eta dirurik gabe bazaude laguntza jasotzeko eskubidea ukatzen bazaizkizu?
- 3.- Zure ustez, nolako bizimodua dute “papergabeek” zure hirian? Ideia bat izateko, erkatu zure familiako kideek egin dezaketena inolako legezko aitorpenik ez duten etorkinen familia batek egin dezakeenarekin.
- 3.- Zer uste duzu esan nahi duela marrazkilariak bineta horretan?

3A Abandoibarra – 59. bineta

- 1.- Berraztertu 47. binetan agertzen diren gaiak, bineta hori ikusi ondoren.

3B Karola garabia – 67. bineta

- 1.- Berraztertu 47. eta 59. binetetan agertzen diren gaiak.
- 2.- Ba al dakizu nor den Morgan Freeman? Bilatu interneten. Marrazkilariak umorea erabiltzen du bi egoera hauek erkatzeko: aktore moduan egindako lanagatik ezaguna den pertsona batena eta eskubidedun herritarren oinarritzko dokumentazioa ere ez duen pertsona batena.

7. atala

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babesa izateko eskubidea. Denek dute Aldarrikapen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea.

1B Leihoa – 7. bineta

- 1.- Interpretatu binetan ikusten duzuna.

- 2.- Zuzena iruditzen zaizu epaileak egin duen banaketa?
- 3.- Justiziak berdin tratatzen gaitu guztiok, inolako bazterkeriarik gabe, legeak berdin aplikatu behar dituelako denontzat.
- 4.- Erraz ikusiko al zenuke zeure burua epaile baten lekuan?

1C Estatua – 21. bineta

- 1.- Bineta horretan, arauak berberak al dira lasterkari guztientzat?
- 2.- Kirol bateko arauak alda al ditzakezu, nortzuek jokatzen duten ikusirik?
- 3.- Zer da “abantailaz jokatzea”?

1D Kulturgunea – 28. bineta

- 1.- Pospolo erreak pertsona bat irudikazen du, delituren bat eginez araua urratu duena. Argi utzi behar da legeak gu guztiok babesten gaituela, zernahi delarik ere gure portaera.
- 2.- Delitu bat egiteagatik kartzelan dagoenak gainerako herritarren eskubide berberak (laguntza medikoa, kultura edo lege-laguntza jasotzeko eskubidea...) ditu edo kendu beharko litzaizkioke?

8. atala

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarrizko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea.

3A Abandoibarra – 51. bineta

- 1.- Zure ustez, bineta honetan epaileak laguntzen al dio herritarrari legearen babesa jasotzen?
- 2.- Legeak eragozten al digu gure eskubideak erabiltzea edo utzi behar al digu eskubideak garatzen?
- 3.- Zeure hitzekin azaldu zer diren legeak eta arauak zuretzat. Zertarako dira? Nola erabiltzen dira? Betetzen al dituzu?

3B Karola garabia – 62. bineta

- 1.- Azaldu bineta horrek zer esan nahi duen, zer dagoen balantzaren plater bakoitzean, eta zer esan nahi duen balantza orekatuta egoteak.
- 2.- Justiziaren munduko erakundeek gizabanakoak gizarte demokratiko batean ongi bizitzeko egin behar dute lan. Ados al zaude esaldi horrekin? Eman adibide bat, non hori gertatzen baita.

9. atala

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

3A Abandoibarra – 52. bineta

1.- Bineta horretan, atxiloteta bidegabe bat azaltzen da. Pertsonaia guztiak urdinak dira, atxilotua izan ezik, eta argi dago desberdintasun hori nahikoa dela atxiloteta gertatzeko. Azaldu hiru egoera, non atxiloteta bidezkoa baita, eta beste hiru, atxiloteta bidegabearenak.

3B Karola garabia – 64. bineta

1.- Bineta horretan, atxilotua izateko ausaz hautatutako pertsona bat agertzen da. Horrelako kasuak erruz gertatu ziren Holokaustoan, Naziak Alemanian, juduak judu izate hutsagatik atxilotzen zituztenean, nahiz eta batere deliturik egin ez, beren atxiloteta justifikatzeko. Bineta horrek aukera paregabea eskaintzen digu ikasleekin gogoeta egiteko erregimen totalitarioetako atxiloteta bidegabeen buruz.

10. atala

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikeriari gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeke.

1B Leihoa – 8. bineta

1.- Binetan, militarrek ez du batere arrazoirik bere eskubideak aldarrikatzen ari den herritarra kartzelara bidaltzeko. Epaitegi burujabe eta inpartzial batek ez du epaitu. Zer esan nahi dute zuretzat “burujabe” eta “inpartzial” hitzek?

2.- Ba al dakizu zer den “judizio mediatiko” bat? Uste al duzu bidezkoa dela hedabideak horrela aritzea?

11. atala

1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

2. Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

1D Kulturgunea – 30. bineta

1.- Behin baino gehiagotan entzungo zenuen honako hau: “Errugabea da, kontrakorik frogatzen ez den bitartean” edo “errugabetasun-presuntzioa” Zer uste duzu esan nahi dutela?

2.- Norbait frogarik gabe akusatzen dugunean errugabetasun-presuntziorako duen eskubidea urratzen dugu. Ikusiko zenuen, seguru, halako kasuren bat zure ikastetxean edo etxean. Kontatu.

3.- Begira nolako umorea darabilen marrazkilariak eskubide hori binetan islatzeko. Marrazkiak eta testuak zentzu ironikoa dute.

5.3.- 3. Miltzoa: 12. Ataletik 17.era, norbanakoak erkidegoarekiko dituen eskubideak lantzen dira

| At. | Lekua | Bineta | Kontzeptuak |
|-----|----------------|--------|--|
| 12 | 2B | 45 | Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea. |
| 12 | 2B | 50 | Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea. |
| 12 | 3B | 60 | Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea. |
| 13 | 1B | 5 | 1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa. |
| 13 | 1B | 13 | 2. Pertsona orok du edozein herrialdeetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa. |
| 13 | 1C | 18 | 1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa. |
| 14 | 2B | 49 | Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea. 2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere. |
| 14 | 3 ^a | 58 | Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea. 2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere. |
| 14 | 3B | 65 | Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea. 2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere. |
| 15 | 2 ^a | 35 | 2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere. |
| 15 | 3B | 66 | 1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea. |
| 16 | 2 ^a | 34 | 2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik. |
| 16 | 2B | 42 | 3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du. |
| 17 | 2 ^a | 37 | 2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik. |
| 17 | 2B | 43 | 1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean. |

Eztabaidarako iradokizunak (3. Miltzoa)

12. atala

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea.

2B Plaza Barria – 45. bineta

- 1.- Zer iradokitzen dizu pribatutasunerako eskubideak?
- 2.- Bineta honetan ikusitakoa eraman ezazu beste eremu batzuetara, hala nola, internetera, telefono mugikorrera, sare sozialetara...
- 3.- Zer da zuretzat “pertsonaren intimitatea errespetatzea”?
- 4.- Zer gai daude pertsonaren intimitatearen barruan?
- 5.- Zer iruditzen zaizu norbaiti bere baimenik gabe grabatzen badiote eta bere irudiak telefono mugikor edo internet bidez zabaltzen badituzte? Barregarria iruditzen al zaizu? Eta zuri egiten badizute?
- 6.- Zure telefono mugikorrera iristen bada irudi bat, zure adineko norbaiti bere baimenik gabe hartua eta barregarri uzten duena, honako hau egin dezakezu:
 - Zure gurasoei esan eta beraiek erabaki dezatela zer egin.
 - Fidatzen zaren irakasle bati esan. Berak emango dizu aholku egokia.
 - 116111 telefonora deitu, horixe da-eta HAURREI ETA NERABEI LAGUNTZEKO TELEFONOA, eta kontatu zer gertatu den.

2B Plaza Barria – 50. bineta

- 1.- Azken urteotan modan jarri da pertsonaia ospetsuei argazki “lapurtuak” egitea, eta hedabideetan ikusgai jartzea. Zer iruditzen zaizu “paparazzi-en” lana? Eta zer iruditzen zaizkizu horrelako aldizkari eta telebista-programen zale diren pertsonak?
- 2.- “Norbaitek bere bizitza kontatzen badu telebistan, ez du protesta egiteko eskubiderik izango, bere intimitatean sartzen badira”. Zer iruditzen zaizu esaldi hori?

3B Karola garabia – 60. bineta

- 1.- Zure iritziz, beste pertsona baten posta bere baimenik gabe irakurtzea pertsona horren eskubideak urratzea al da?
- 2.- Eta bere posta izan beharrean bere egunerokoa edo berak idatzitako oharrak badira? Gauza bera al da?

13. atala

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.
2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

1B Leihoa – 5. bineta

- 1.- Deskribatu binetan agertzen diren hiru egoerak, azpiko testuaren arabera.
- 2.- Zer dakizu pateri buruz? Zer-nolako jendea bidaiatzen du pateretan? Zergatik jartzen dute arriskuan beren bizitza? Xede-herrialdera iritsita, zer aurkitzen dute?

1B Atea – 13. bineta

- 1.- Binetan, oso zaila da lurralde batetik ateratzea eta bertara itzultzea. Inork ez luke arazorik izan beharko, norbere herrialdetik atera eta bertara itzultzea denon eskubidea baita.
- 2.- Ba al dakizu zer baldintza bete behar dituzun Europar Batasunean zehar aske ibiltzeko? Erraztasun berberak al dituzu beste kontinente batzuetako herrialdeetara joateko? Jaso ezazu horri buruzko informazioa.

1C Loreak – 18. bineta

- 1.- Zer arrazoi izan ditzake pertsona batek bere herrialdetik alde egin eta beste batera bizitzera joateko?
- 2.- Zure familian ba al inor atzerrira joan denik lan bila? Eskatu etxean horri buruzko informazio gehiago, eta gero, ikasgelan kontatu.
- 3.- Bilatu hiztegian “immigratu” eta “emigratu” aditzen arteko aldea.

14. atala

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.
2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

2B Plaza Barria – 49. bineta

- 1.- Atal honek bi zati ditu. Horren arabera, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatzeko eskubidea, baina muga batzuk baditu eskubide horrek. Zenbait egoeratan eskubidea da, eta beste zenbaitetan, ordea, ez. Aipatu bien adibideak.

3A Abandoibarra – 58. bineta

- 1.- Esan zer adierazi nahi izan duen marrazkilariak bineta horretan, zure iritziz.

3B Karola garabia – 65. bineta

- 1.- Batzuetan, jendeak bere herrialdetik alde egin behar izaten du eta beste herrialde batean edo batzuetan babesa bilatu. Aipatu horren adibide batzuk.
- 2.- “Errefuxiatu” hitza egoera horretan dagoen pertsona bat izendatzeko erabiltzen da. Gatazka armatu baten ondorioz zenbaitek ihes egiten dute beren herrialdetik, bizirik jarraitzeko. Horiexek dira errefuxiatuak. Gaur egun ba al da halako egoerarik? Begiratu egunkarietan.

15. atala

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.
2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

2A Elizpea – 35. bineta

- 1.- Binetan, pertsonaietako bati ez diote uzten nazionalitaterik izaten. Baina hori edonoren funtsezko eskubidea da. Zure ikastetxean, zenbat nazionalitate daude? Eskatu laguntza zure irakasleei datu hori eskuratzeko.

2.- Zure ikastaldean nazionalitate desberdinetako jenderik egonez gero, polita litzateke halako koadro bat egingo bazenu ikaskideen banderekin.

3B Karola garabia –66. bineta

1.- Margolaria gogoko duen nazionalitatea aukeratzen ari da. Nazionalitatea aldatzeko, baldintza batzuk bete egin behar dira, eta baldintza horiek nazionalitate berriko herrialdeak ezartzen ditu. Ba al dakizu zer baldintza bete behar dituen etorkin batek espainiar nazionalitatea eskuratzeko?

16. atala

1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia aratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.
2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.
3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

2A Elizpea – 34. bineta

- 1.- Zer iruditzen zaizkizu ezkongaien familiek hitzartutako ezkontzak?
- 2.- Zer dago sobera binetako irudian?

2B Plaza Barria –42. bineta

- 1.- Zu agintaria bazina, zer neurri hartuko zenituzke familiak babesteko?
- 2.- Deskribatu bizpahiru familia-mota, zenbat kide dituzten kontuan izanik. Familia horiek guztiek babesa jasotzeko eskubide berbera dute.

17. atala

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.
2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.

2A Elizpea –37. bineta

- 1.- Zer da zuretzat banako jabetza?
- 2.- Zure gauzetatik zein ezin ditu beste inork erabili?
- 3.- Zer alde dago banako jabetzaren eta jabetza kolektiboaren artean?
- 4.- Esan zer esaldirekin zauden ados:
 - Zure ikaskideren batek gogoko duzun zerbait baleuka, gustura hartuko zenioke, bera ezertaz konturatu aurretik.

- Gero atzera ematen badiozu, ez duzu ezer txarrik egingo.
- Harrapatzen ez bazaituzte, ondo egina, zer demontre.
- Uzteko esaten badiozu eta ezetz esaten badizu, errespetatu egin beharko duzu bere erabakia, haserretu gabe.

2B Plaza Barria – 43. bineta

- 1.- Deskribatu bineta horretan ikusten duzuna.
- 2.- Horrelako egoerarik ikusi al duzu inoiz zeure ikastetxean edo zeure auzoan? Kontatu.
- 3.- Zer iruditzen zaizu zuzenagoa: esatea jabetza kolektiboa ez dela inorena edo esatea guztiona dela?

5.4.- 4. Multzoa: 18. Ataetik 21.era, pentsamendu, kontzientzia, erlijio eta askatasun politikoen eskubideak lantzen dira

| At. | Lekua | Bineta | Kontzeptuak |
|-----|----------------|--------|---|
| 18 | 1B | 6 | Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du (...) |
| 19 | 1 ^a | 1 | Gizabanako guztiek dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolanhiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa. |
| 19 | 1B | 3 | Gizabanako guztiek dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolanhiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa. |
| 19 | 1B | 15 | Gizabanako guztiek dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolanhiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa. |
| 19 | 1D | 32 | Gizabanako guztiek dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolanhiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa. |
| 20 | 1C | 20 | 1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez. 2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea. |
| 21 | 1D | 25 | 3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldiari-aldiari egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketaren orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez. |

Eztabaidarako iradokizunak (4. Multzoa)

18. atala

Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinismena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinismena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, ihardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

1B Leihoa – 6. bineta

- 1.- Zer iradokitzen dizu binetako marrazkiak?
- 2.- Norbaitek esandako zerbaitekin ados ez bazaude, zer egiten duzu?
 - Ditudan arrazoi guztiak azaltzen dizkiot oker dagoela konbentzitzeko.
 - Errespetuz entzuten ditut bere arrazoiak, ados ez banago ere.
 - Ez diot kasurik egiten: normalean neuk izaten dut arrazoia, neuk bakarrik.

19. atala

Gizabanako guztiek dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

1A Irabazleak – 1. bineta

- 1.- Binetako pertsonaia nola edo hala moldatzen da bere iritzia emateko, horretarako eskubidea du eta. Zer iradokitzen dizu marrazkiak?
- 2.- Uste al duzu norbaiti hitz egitea debekatzen bazaio, bere pentsamendua ere deuseztatuta geratzen dela?

1B Leihoa – 3. bineta

- 1.- Zer hedabide ezagutzen dituzu?
- 2.- Esan zer esaldirekin zauden ados:
 - Egunkariak eta albistegiak oso aspergarriak dira, eta aisialdiko telesaiok baino ez lituzkete eman beharko, eta beste guztiak kendu.
 - Munduan zer gertatzen den jakiteak laguntzen digu errealitatea hobeto ulertzen eta gizartea hobetzen.
 - Albisteak ez dira aldatu behar, ez eta faltsutu ere, hori iruzur egitea delako.
 - Berdin dio pertsona batzuek informaziorik eskuratu ezin badute. Seguru asko ez lukete ulertuko informazio hori, pobreak edo ezjakin hutsak direlako.
 - Entzuten dudana entzuten dudala, onena dut ezeri buruz iritzirik ez ematea. Horrela, kezkarik gabe biziko naiz.

1B Atea – 15. bineta

- 1.- Gure pentsamendua askea da eta inork ez du manipulatzeko eskubiderik.
- 2.- Zergatik uste duzu hedabideek modu desberdinetan ematen dutela albiste bera?
- 3.- Zer esan nahi du “albiste bat egiaztatzea”?
- 4.- Zer alde dago informatzearen eta iritzia ematearen artean?

1D Kulturgunea – 32. bineta

- 1.- Guztiok askatasunez adieraz dezakegu geure iritzia; inork ezin digu hori egitea debekatu.
- 2.- Guk ere ezin dugu beste batzuen adierazpen-askatasuna oztopatu. Ados al zaude printzipio horrekin?

20. atala

1. Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

1C Kobazuloa – 20. bineta

- 1.- Esan esaldi hauetako zein den zuzena eta zergatik:
 - Denok dugu nahi dugunarekin eta nahi dugunerako elkartzeko eskubidea.
 - Nahi dugunarekin elkartzeko eskubidea dugu, baldin eta gure helburuak baketsuak badira.
- 2.- Ezagutzen al duzu helburu baketsurik ez duen elkarterik?
- 3.- Zer uste duzu egin behar dela indarkeriazko helburuak dituzten elkarteekin?

21. atala

1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.
2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.
3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldian-aldian egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

1D Kulturgunea – 25. bineta

- 1.- Binetan, politikari bat agertzen da; entzuten dioten pertsonak bozka eman diote. Pertsona horiek gehiago bozkarik emango ez baliote, ez litzateke berriro beren legezko ordezkaria izango.
- 2.- Garrantzitsua da gure iritzi politikoa bozkaren bidez adieraztea, bozkek -eta ez beste ezerk- ematen baitie zilegitasuna instituzioetako buruei.
- 3.- Sortu mahai-inguru bat bi gai hauei buruz eztabaidatzeko:
 - Gehiago bozkarik ematen ez badugu, gure demokrazia egiazkoagoa izango da.
 - Bozka ematera joaten bagara, benetako demokrazia izango dugu.

5.5.- 5. Multzoa: 22. Ataetik 27.era, eskubide politikoak, sozialak eta kulturalak lantzen dira

| At. | Lekua | Bineta | Kontzeptuak |
|-----|----------------|--------|--|
| 22 | 2 ^a | 41 | Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantzza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa. |
| 22 | 2B | 48 | Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantzza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa. |
| 23 | 2 ^a | 33 | 1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lanbaldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa. |
| 23 | 2 ^a | 39 | 3. Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da. |
| 23 | 3 ^a | 54 | 2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea. |
| 23 | 3B | 68 | 1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lanbaldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa. |
| 24 | 2 ^a | 38 | Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa. |
| 24 | 3 ^a | 56 | Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa. |
| 24 | 3B | 61 | Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa. |
| 25 | 1 ^a | 2 | 2. Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute. |
| 25 | 1 ^a | 4 | 1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere. |
| 25 | 1B | 1 | 1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere. |

| | | | |
|----|----------------|----|--|
| 25 | 1D | 31 | 1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere. |
| 25 | 1B | 16 | 2. Amek eta hurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute. |
| 26 | 1 ^a | 5 | 1. Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera. |
| 27 | 2 ^a | 36 | 2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egille diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea. |
| 27 | 3 ^a | 53 | 1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko. |

Eztabaidarako iradokizunak (5. Multzoa)

22. atala

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa.

2A Elizpea – 41. bineta

- 1.- Doako laguntza medikorako eskubideak denok berdintzen gaitu. Baina beti ez dugu eskubide hori izan.
- 2.- Zer irudituko litzaizuke sendagileek jende diruduna baizik artatuko ez balute? Nortzuk geratuko lirateke laguntza medikorik gabe?

2B Plaza Barria – 48. bineta

- 1.- 22. atala irakurrita, nola interpretatuko zenuke bineta hori?

23. atala

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lanbaldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.
2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.
3. Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.

4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

2A Elizpea – 33. bineta

1.- Aukeratu zure inguruko pertsona bat eta aztertu nolako lan-baldintzak dituen eta ea baldintza horiek onak diren. Horretarako, galdetegi bat prestatu, eta gero, egiozu elkarrizketa, kazetaritzako moldean idatziko duzuna.

2A Elizpea – 39. bineta

1.- Aurreko inkestan galdetu ea, 23. artikulua dioen bezala, elkarrizketatuak “bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzen ote duen, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lan-saria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da”.

3A Abandoibarra – 54. bineta

- 1.- Uste al duzu minusbaliotasunen bat izatea nahiko arrazoi izan daitekeela pertsona bati lanik ez emateko, nahiz eta lan hori egiteko ondo prestatuta egon?
- 2.- Uste al duzu minusbaliotasunen bat duten pertsonen arazo gehiago, gutxiago edo besteek adina arazo dituztela lana aurkitzeko?

3B Karola garabia – 68. bineta

1.- Esan zer eginkizun duen eskuko atzamar bakoitzak. Lan guztiek duintasun berbera dute. Eta guztiak dira beharrezko.

24. atala

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

2A Elizpea – 38. bineta

- 1.- Nola bizimodua izango zenuke, sekula batere atsedetik izango ez bazenu? Eta nolako bizimodua izango lukete zure etxeak?
- 2.- Zure etxean ba al da beti lanean (bai etxean, bai etxetik kanpo) ari denik? Inoiz pentsatu al duzu zer egin dezakezun zure etxe guztiek atsedena izan dezaten?

3A Abandoibarra – 56. bineta

- 1.- Garai batean, langileek ez zuten atsedenerako eskubiderik. Atsedena XX. mendearen hasieran lortu zen.
- 2.- Atsedetik faltan egoteak zer ondorio izan ditzake osasun fisikoan nahiz burukoan?

3B Karola garabia – 61. bineta

1.- Ba al dakizu zer den “lanarekiko adikzioa”? Zer iruditzen zaizu?

25. atala

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.
2. Amek eta hurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

1A Irabazleak – 2. bineta

- 1.- Marrazkilariak bi trenbide erakusten ditu, oso desberdinak diren bi trenbide. Batean, eskolan aritzeko adina duten haur batzuek helduen modura egiten dute lan; bestean, ordea, beste haur batzuk jolas-parke batean ondo pasatzen ari dira.
- 2.- Leku askotan, haurrak lan egitera eta gerretan borroka egitera behartzen dituzte, eta denetariko abusuak pairatzen dituzte. Irakurri arretaz artikulua. Ikusiko duzu Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenak estatuei eskatzen diela bereziki haurrak babesteko.

1A Irabazleak – 4. bineta

- 1.- Zure ustez, nolako tratua jasotzen du binetako pertsonaiak? Zerbaitengatik baztertzen dute?
- 2.- Zer da, zuretzat, baztertuta dagoen pertsona bati elkartasuna adieraztea? Nola jokatu zenuke halako egoera bat ikusiz gero? Esan adibide bat.

1B Leihoa – 1. bineta eta 1D Kulturgunea – 31. bineta

- 1.- Etxebizitzarako eskubidea gizakiaren funtsezko eskubide bat da. Krisialdi ekonomikoetan, jende askok galtzen dute bere etxebizitza, ordaindu ezinik daudelako. Zer egin beharko lukete estatuek, halakorik gerta ez dadin?

1B Atea – 16. bineta

- 1.- Badakizu herrialde batzuetan haurrak behartzen dituztela gerretan borroka egitera. Haur soldaduak dira. Jaso ezazu informazioa horrelako kasuren batzuei buruz.
- 2.- Gobernuz kanpoko zenbait erakunde haurrak babesteko lanetan aritzen dira. Bilatu horrelakoren batzuk interneten, eta egin zerranda bat, erakunde horiek garatzen dituzten programekin eta programa horien kokapen fisikoarekin.

26. atala

1. Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarritzko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarritzko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.
2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko

elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen iharduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

3. Gurasoek lehenetsuneko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

1A Irabazleak – 5. bineta

- 1.- Amildegia handi bat dago ikastera doan neskatilaren eta eskolaren artean, eta ez dago zubirik. Zure ustez, nork egin behar du zubi hori, hezkuntza neskatilaren eskura egon dadin?
- 2.- Nor edo nortzuk dira adingabeek ahal denik eta hezkuntza-mailarik handiena eskuratzearen erantzuleak?

1D Kulturgunea – 29. bineta

- 1.- Esan zer iruditzen zaizun esaldi hau: “Herrialde aberatsetan, hezkuntzak oso kalitate ona izan behar du, onena; pobreetan, ordea, nahikoa da hurrek idazten eta irakurtzen jakitea”.

27. atala

1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.
2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egille diren pertsona guztiak dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

2A Elizpea – 36. bineta

- 1.- Artistek beren sormen-lanetatik etekinak eskuratzeko eskubidea dute; zientzialariek beren ikerlanetatik eta asmatzaileek beren asmakarietatik. Ados al zaude horrekin?
- 2.- Zer iruditzen zaizu filmen edo abestien legez kanpoko deskarga?

3A Abandoibarra – 53. bineta

- 1.- Zer iradokitzen dizu kulturarako eskubideak?
- 2.- Binetako neska ezin da liburutegian sartu. Beraz, ezin du bere kultura garatu. Ba al dakizu munduko herrialde guztietan zu bezalako neska-mutil guztiak kulturaren munduan sar ote daitezkeen? Halakorik gertatzen ez den kasuren bat ezagutzen al duzu?

5.6.- 6. multzoa: 28. ataetik 30.era, eskubide horiek baliatzerakoan dauden baldintzak eta mugak lantzen dira

| At. | Lekua | Bineta | Kontzeptuak |
|-----|-------|--------|--|
| 28 | 1A | 3 | Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin. |
| 28 | 1B | 14 | 2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan. |
| 29 | 2A | 40 | 2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan. |
| 29 | 3A | 55 | 2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan. |
| 30 | 2B | 46 | Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik. |
| 30 | 3B | 63 | Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik. |

Eztabaidarako iradokizunak (6. multzoa)

28. atala

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

1A Irabazleak - 3. bineta

1. Binetaren ezkerreko aldean, neskek ez dauka ezertxo ere, eta eskuineko aldean, ordea, zenbait gauza agertzen dira; gauza horiek aldarrikapen Unibertsalaren artikuluen edukiarekin zerikusia dute. Hori dela eta, binetak 30 desberdintasunak aurkitzeko iradokitzen ditu. Aipatu desberdintasun horietako batzuk, eta esan zein artikulurekin duten lotura.

29. atala

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.
2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko

eskakizunak betetzeko legez ezar daitezzen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.

3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurka.

2A Elizpea - 40. Bineta

1.- Gizakiak beti komunitatean bizi gara, eta harekiko betebeharrak ditugu. Gure eskubideen mugak besteen eskubideak dira. Azaldu nola aplikatuko zenukeen hori binetako egoeran.

2.- Aipatu zure eguneroko bizitzako hiru egoera (eskolakoa, familiakoa eta laguntaldekkoa), non besteekiko betebeharrak onartu behar baitituzu.

3A Abandoibarra - 55. bineta

1.- Irakurri arretaz artikulua honetako 2. puntua, eta erabili horko arrazoibideak bineta hau azaltzeko.

30. atala

Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

2B Plaza Barria - 46. Bineta

1.- Zer da kontraesankorra bineta honetan? Azaldu zeure hitzekin.

3B Karola garabia - 63. bineta

1.- Hona zer den “legearen espirtua”: legelariak lege jakin bat idatzita lortu nahi dena. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren kasuan, zer asmorekin uste duzu sortu zutela?

2.- Aldarrikapen hau Bigarren Mundu Gerra bukatu eta berehala idatzi zen. Zure iritziz, harremanik izan al zen bi gertaeren artean? Zergatik?